




Ekuazio kimikoen doiketa

Hidrogeno eta iodo konbinatzean, zenbat hidrogeno ioduro (HI) lortzen da? Irudian ikusten denez, hidrogeno molekula bat eta iodo molekula bat erreakzionatzen dutenean bi molekula hidrogeno ioduro lortzen dira:




Materiaren kontserbazioa (eta ondorioz atomoen kontserbazioa, hau da, erreaktiboan aldean eta produktuen aldean dauden atomo-kopuruak berdinduta egotea) betetzen duen ekuazio kimikoa, doituta dagoela esaten da.

Ekuazio kimikoa doitzean, osagai bakoitzaren koefizienteak zehazten dira. Koefizienterik jartzen ez denean, "1" da. Hau da, aurreko ekuazio kimiko doituan koefiziente guztiak zehaztuko bagenitu, espresio hau lortuko genuke:



Koefizienteak, beraz, espezie bakoitzaren aurrean idazten da. Ekuazioak doitzeko ezin dira aldatu substantziaren formularen azpiindizeak, zeren horrela substantzia horren barneko egitura aldatuko genuke. Hau, nahiz eta doituta egon, gaizki dago:



Ekuazio kimikoa doitzeko, atomo-mota bakoitza doitzen da banan-banan.


Ariketa

Metanoaren konbustioa doitu: $\text{CH}_4 + \text{O}_2 \rightarrow \text{CO}_2 + \text{H}_2\text{O}$

Atomo-kopuruak kontatuz, ekuazio kimikoa doitu gabe dagoela ikusten da:

Atomoak	Erreaktiboak	Produktuak
Karbono	1	1
Oxigenoa	2	3
Hidrogeno	4	2

Gutxien dagoen aldean koefizienteak handituz, ekuazioa doitu egiten da:



Ikusten denez, irudi honetan atomo kopuruak berdinduta daude, zeren:

Atomoak	Erreaktiboak	Produktuak
Karbono	1	1
Oxigenoa	4	4
Hidrogeno	4	4

BIBLIOGRAFIA:

- "Introductory Chemistry. A Conceptual Focus". Steve Russo, Mike Silver (Addison Wesley Longman)